

Antoni Arantzabal

*Elgeta, Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea

Biografia



Arantzeta auzoko Iturri baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Lau anai-arreba izan ziren: bi jaioberritan hil ziren eta anaia hospiziokoa zen. Umetatik jardun izan du baserriko lanetan, eta horien gaineko hainbat azalpen ematen ditu. Elgetako eskolaz eta bizimoduaz ere hainbat azalpen ematen ditu, hartzun bizia eta jario handikoa baita.

Zintak

ELG-016

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Data:** 2007-12-06
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ELG-017

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Data:** 2007-12-06
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. 1929an Iturri baserrian jaioa

- **Erref:** ELG-016/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1929an jaio zen Elgetako Arantzeta auzoko Iturri baserrian.

Transkripzioa

-Ba dakat setenta y ocho años maietzian pasauta. El año veintinueve creo, nacida el año veintinueve, creo.

-Beti bizi izan za baserri honetan?

-Beti, beti. Hamen nago oindio.

-Kontau baserrixa zein dan eta nun dauen.

-Basarrixa da Iturri, basarrixan izena da Iturri. Ba lehenao familixa haundixa zeuan hamen, ni txikixa nitzanian gurasuak, kriaui ta. Bueno. Obreron bat be hartzen zan lanak eitteko ta. Oin berez ba legau nai ni bakarrik. Ni ezkondua naiz, alarguna, familixaik ez naban euki, ta oin bakarrik bizi nai.

-Zu bakarrik?

-Bai.

-Basarrixa Arantzeta.

-Arantzeta da "barrio", eta hau da Iturri. Caserío Iturri.

-Lehen esan dozu jente asko bizi ziñatela hamen?

-Bai. Gu be hiru anai-arreba giñan, ta kriaui ta gurasuak, ta aman aizta soltera bat be bai, ta bueno. Danendako lana egoten zan, eta basarri ingurua egoten zan hobeto zainduta, ta oin ba mano de obria zeuk beste bati eraitten ba dotsazu, ba kobratzen dotsue diru pillu bat, ezin leike pagau. Ta ba erdi abandonauta terrenuak eta hola.

2. Umetatik baserrian lanean

- **Erref:** ELG-016/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

6 urterekin hasita, mojen eskolan ikasi zuen 13 urtera arte eta ondoren etxeko lanetan aritu zen. Umetatik lan egin behar izan du baserrian.

3. Bergara eta Eibarko azoketara saltzera

- **Erref:** ELG-016/004
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian egin behar izaten zituzten lanak aipatzen ditu. Ama Bergarara eta Antoni Eibarrera joaten ziren etxeko jeneroa saltzera. Elgetatik Eibarrera autobusa zegoen eta goizean joan eta eguerdirako etxera bueltatzen zen.

Transkripzioa

-Orduan baserrixan hamaika urtekin hasi ziñan lanian.
-Hamaika urtekin edo lehenao be eingo neban zeoze. Bai-bai.
-Esan dozu lelengo gaztian lanak eta gero nagusixauenak...
-Politto-politto faten za ikasixaz-ikasixaz.
-Zeintzuk dira umienak eta zeintzuk nausixenak?
-Umienak ba zer esango dotsut nik, iturrittik ura be ekarri bihar izaten zan edateko ta lapikua eitteko be bai. Eta horrek izaten zan, ura ekartzia ta horrek umien lanak. Ta igual egurrak su eitteko ekarri leikez umiak; asko be ez kantidadia, baiña gutxiao bai. Ta ba holakotxe lanak. Edo etxe batetik bestera errekauek ein edo. Edo Elgetatik be errekaun bat ekarri herrittik be-ta. Holako lanak.
-Iturrixa nun zeuan ura ekartzeko?
-Ba hortxe harutzatxuao, ez dakit ba zenbat egongo dan.
-Hemen bertan edo urrutiago?
-Ez, urrutixuao. Ez dakit ba hirurehun metro edo? Edo gehixao. Bai, hortxe bastante harutzatxuao.
-Eta hemen basarriko gauzak gero saldu egitten zenituzten?
-Bai. Eibarrera faten nitzan. Nere ama Bergara faten zan. Ta ni ba, ama be erreumiakin pixkat izurrauta zeuan ta gazteik eziñian geratu zan eta ni hasi nintzan oso gazte, ni hamalau urtekin faten nintzan bendejiakin Eibarrera plazara. Erauten neban ba ettxian euan dana, ortuan euana: letxugak, lekak, tomatia sasoian, frutia be bai euanian, oilaskuak be bai, arrautzak... Ta, bueno, hori dana saltzen giñuan Eibarrera.

-Merkatu plazan?

-Bai.

-Zapatuan?

-Bai. Ta ez nintzan faten. Lehenau nere ama astuakin faten zan, baiña ni hasi nintzanerako Elgetatik autobusa zeuan hasitta, ta faten giñan ba autobusian. Goizian faten giñan, ta hamabitterdietan eukitzen eban Eibarren salidia ta eguardixan etxera. Holan eitten giñuan. Eta etxian sobratzen zan gauza guztia... Sobratzen zana eta igual sobratzen ez zana be. Igual, klaro, zeuk bihar ziñuana eitteko dirua bihar ziñuan eta hori jirau ein bihar zan nunbaittetik. Ta igual gauza eskasauak etxian jan, entenitzen dozu, eta hobiauak eruan diru gehixao hartzearren eta. Holako gauzak be eitten zian. Eztau emoten baiña oin oso aldatuta dao gauzia. Eneee, lehen! Hori egixa da, e. Honekin horrenbeste eta hau eruaten badot horrenbeste. Ba etxian eskasaua jan diru gehixao hartzearren haundixauakin. Ta holaxe.

4. Medikua etxez etxe

- **Erref:** ELG-016/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Elgetan mediku bat zegoen eta inor gaixotuz gero, bera joaten zen etxera. Artean biderik ez zegoenean, komeriak izaten zituzten eguraldi txarrarekin, ez zuten arropa egokirik izaten eta.

5. Eskolara huts egin behar baserriko lanak egiteko

- **Erref:** ELG-016/007
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Sarritan huts egiten zuen eskolara baserrian eginbeharrak zituztelako. Orduan normaltzat hartzen zen baserritarrak eskolara ez joatea lanak egitearren.

6. Eskolan dena gaztelaniaz

- **Erref:** ELG-016/008
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:14:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Erdaraz ez zekien tutik ere eta nolabait moldatu behar izan zuen. Mojetan bazekiten euskaraz. Lagunekin euskaraz egiten zuen.

7. "Txirikilan" jokoa

- **Erref:** ELG-016/009
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:17:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Garizuman "txirikilan" jolasten zuten. Jokoaren nondik norakoa azaltzen du.

8. Inguruko jaietara

- **Erref:** ELG-016/010
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:17:16. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Juanetan Eibarrera, Pazkoetan Bergarara eta irailean Elorrioko feria nagusira joaten ziren, 15 urte inguru zituela. Eibarren musika-banda eta atrakzioak egoten ziren eta pagarik izanez gero, pastela jan eta kasa edaten zuten Antonik eta lagunek.</p>

Transkripzioa

- Eibarrera sekula ez ziñen jeitsi?
- San Juanetan, San Juanetan faten giñan. Pazkuetan... Gure salidia gazte-denporan, san Juanetan, san Juan egunian Eibarrera. San Juan egunian, besterik ez. Pazkuetan, Pazkua Erdiko egunian Bergara, ta Ferixa Nausiko egunian, setienbrian, Elorrixora. Horretxek hiru salidok eukitzen giñuzen.
- Eta zelan joaten ziñaten?
- Autobusa. Elgetatik autobusa egoten zan.
- Zenbat urtekin hori? Hamabost edo?
- Bai, pasauta. Hamabost baiño gehixao. Ez dakat goguan hori, baiña gure gazte-denporan. Ez, oiñez be faten giñen gaiñera. Bai, oiñez be fanda nao, eta ez baten bakarrik gaiñera, Bergara porrejenplo. Eibarrera oiñez fatia ez jata akordatzan, baiña Bergara bai. Baten baiño sarrixao nao fanda Bergara oiñez Pazkua Erdiko egunian. Eta etorri ez dakit zelan ingo nitzan. Etortzeko, gabian etortzeko autobusa eukiko giñuan edo. Eibarrera beti autobusian, fan eta etorri autobusian. Eta ostientzian ba beste erremedioik ez genkagun hamen.
- Zer egoten zan Eibarren san Juanetan?
- Ba bandia be bai ta tiobibuak eta. Bueno ba, ez dakizu hori gauzioi? Ta ostientzian ez dakit egoten zan holan aparteko... Musikia. Ez naiz akordatzan besteik. Ta bueno, paga txikin bat egoten zan Kasa erateko. Pastelen bat edo jaten baziñuan eta Kasa eran, buenooo!, ha izaten zan guretako zera. Puf. San Juanok. Ja-ja, dirua be gutxi egoten zan eta. Diru gutxikin badakizu, gauza asko ezin in.

9. Gramola plazan; jaiak

- **Erref:** ELG-016/012
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Elgetan gramola musika egoten zen eta erromeria egiten zen igandero. Andra Mari eta San Roke jaietan Bergara eta Eibartik musika bandak joan ohi ziren txandan. Jaietan Bizkai aldeko emakume batzuk, astoetan madariak hartuta, saltzera joaten ziren Elgetara.

10. Neskari ez tabernetara

- **Erref:** ELG-016/013
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:24:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Neskak ez ziren tabernara sartzen, baina mutilak bai. Mutilek neskei madariak erosten zizkieten eta haiek janez elkarrekin berriketan egoten ziren. Senargaia umetatik ezagutzen zuen.</p>

11. Neska-laguntzeko pasadizoa

- **Erref:** ELG-016/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lagun bati neska-laguntzean pasatako pasadizoa kontatzen du.

12. Etxe atarian garbitokia

- **Erref:** ELG-016/019
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:28:25. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Etxean ez zuten urik; etxetik gertu garbitokia zuten eta hara joaten ziren. Etxe atzeko mendia ur ugarikoa izan da beti.

13. Garia ebakitzen auzolanean

- **Erref:** ELG-016/020
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoan zuten harremana aipatzen du. Gari-ebakitzea auzolanean egiten zuten inguruko baserrietakoak elkartuta. Gariaren inguruko kontuak.

14. Labesuan ogia egiten

- **Erref:** ELG-016/021
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:36:11. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errota etxetik beheragoan zuten eta handik astoan eramaten zuten irina. Labesua egiten zuten astero, aste guztirako ogia. Arto-esnea eta taloa sarri jaten zituzten.</p>

15. Eguneroko otorduetako jakiak

- **Erref:** ELG-016/022
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Taloa nola egiten den azaltzen du. Eguneroko otorduetan babak azekin eta asteburuetan urdaia nahastuta jaten zituzten. Ardoa Elgetako bati erosten zioten garrafoietan eta etxean botiletara pasatzen zuten.</p>

16. Etxejabeei errenta ordaindu behar

- **Erref:** ELG-016/023
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:44:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Gabonetan kapoia jaten zuten. Errenteroak ziren etxean eta ugazabari ordainetan kapoia, artoa, etab. ematen zioten. Aldamenekoek etxea utzi zutenean, Antoniren gurasoek hartu zuten, eta bi etxeak errentan izan zituzten.

17. Txerri-hiltzea eta odolosteak

- **Erref:** ELG-016/024
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:44:53. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Txerria hiltzera harakina joaten zitzaien etxera. Etxekoekin afaria egiten zuten. Amak odolosteak egiten zituen eta harekin ikasi zuen Antonik. Odolosteak nola egiten diren azaltzen du.</p>

18. Emakumeak gorputza ondo estalita

- **Erref:** ELG-016/028
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gorputza ondo estaltzeko moduko arropak jantzi behar izaten zituzten, agirian ezin izaten zuten ezer eraman eta.

19. Igandeetan zapatak

- **Erref:** ELG-016/030
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:51:22. **Bukatu:** 00:53:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Antoniren gurasoen aurrekoek, bide erdia oinutsik egiten zuten eta gero janzten zituzten abarkak. Igandeetan zapatak janzten zituzten eta gainontzean abarkak.

20. Lasto suaren argitan mezetara

- **Erref:** ELG-016/031
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:53:19. **Bukatu:** 00:56:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Igandeetan goizeko 7etarako joaten ziren Elgetara mezetara. Meza garaian jotzen ziren kanpaiak eta orduko pasadizoak kontatzen ditu. Lastoz egindako suaren argitan joaten ziren mezetara. Elgetan 3 apaiz egoten ziren.

21. Gerra zibila hasi zenekoa

- **Erref:** ELG-016/033
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

17 urte zituela izan zen gerra eta orduko gertaera batzuk kontatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com